

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK. 2017

Euskal administrazioetako Aurrekontu-saldo ez Finantzarioa hirukoiztu egin da 2017n, aurreko urtearekiko

Eusko Jaurlaritzak 235 milioiko saldo positiboa izan du, 2007. urteaz geroztik lehenengoz

Euskal Administrazioen -Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udal administrazioak, beren erakunde autonomoekin eta udalaz gaindiko eta azpiko erakundeekin batera- diru-sarrerara sendotuak 18.150 milioi eurokoak izan ziren 2017n, aurreko urtean baino % 5,7 gehiago, Eustaten arabera. Gastuak, bestetik, 17.502 milioi izan ziren, % 5 gehiago.

Eragiketa ez finantzarioak aintzat hartuz ikus daiteke diru-sarrerak gastuak baino gehiago hazi zirela ere: % 7,5 lehenak eta % 5,1 gastu ez finantzarioak. Aurrekontu-saldo ez Finantzarioa, honela, 2016ko 200 milioi euroetatik 599 milioira igaro zen 2017. urtean. Eusko Jaurlaritzaren saldoak, gainera, balio positiboak lortu zituen ere (+235 milioi), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde-administrazioen kasuan gertatzen ohi den bezalaxe.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua (Mila euro). 2016-2017

	2016	2017	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	17.176.240	18.150.478	5,7
Eragiketa Arruntak	15.404.888	16.690.012	8,3
-Zerga Sarrerak	13.796.587	15.065.955	9,2
PFEZ	4.837.190	5.142.483	6,3
Sozietate-zerga	1.086.880	1.076.963	-0,9
BEZ	5.165.460	6.047.093	17,1
Zerga Bereziak	1.419.275	1.457.082	2,7
Udal-zergak	717.985	724.751	0,9
Bestelako Zergak	569.797	617.583	8,4
-Bestelako sarrera arruntak	1.608.301	1.624.057	1,0
Kapital-eragiketak	269.931	167.096	-38,1
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.674.819	16.857.108	7,5
Finantza-eragiketak	1.501.421	1.293.370	-13,9
GASTUAK GUZTIRA	16.665.046	17.502.238	5,0
Eragiketa Arruntak	14.037.445	14.701.164	4,7
Langileria Gastuak	3.562.747	3.634.851	2,0
Transferentzia Arruntak	4.882.700	5.358.285	9,7
Bestelako Gastu Arruntak	5.591.999	5.708.029	2,1
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.437.405	1.557.201	8,3
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.474.850	16.258.365	5,1
Finantza-eragiketak	1.190.196	1.243.873	4,5
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.367.443	1.988.848	45,4
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANZARIOA	199.969	598.743	-


Iturria: Eustat. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Bestalde, eragiketa finantzarioen ondoriozko diru-sarrerek 2017n behera egin bazuten ere (% 13,9), 1.293 milioi eurora iritsi arte, gastu finantzarioak 1.244 milioi euro izan ziren, % 4,5eko igoerarekin.

Diru-sarrera ez finantzarioen hazkundera ohiko diru-sarreraren bilakaera positiboaren (% 8,3) ondorio izan zen. Aipatuek, diru-sarrera guztien % 93 suposatu zuten. Beren pisua txikia bada ere, kapital-eragiketengatik diru-sarrerek % 38,1eko beherapena izan zuten.

2017ko zerga-sarrerek diru-sarrera guztien % 83 suposatu zuten eta ia guztiek bilakaera positiboa izan zuten aurreko ekitaldiarekiko, % 9,2ko hazkundera agertuz. BEZ eta PFEZ delakoak dira nabarmentzekoak, bolumenari zein hazkunde-mailari dagokionez; BEZarengatik izandako diru-sarrerek % 17,1 egin zuten gora, zerga-sarrera guztien % 40,1era iritsi arte. PFEZk, bestetik, % 9,2 egin zuen gora eta guztien % 34,1 suposatu zuen. Hirugarren tokian Zerga Bereziak ageri dira: zerga-sarreraren % 9,7 suposatzen dute eta % 2,7ko hazkundera izan zuten. Udal Zergek eta Beste Zergek bilakaera positiboak agertu zituzten ere, nahiz eta txikiagoak izan: % 0,9 eta % 8,4 egin zuten gora, hurrenez hurren.

Euskal Administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2017 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Ohiko beste sarrerek -tasak, transferentziak eta ondare-sarrerak biltzen dituzte, besteren artean-ohiko eragiketen ondorioz lorturiko diru-sarrera guztien % 10,8 suposatu zuten eta % 1eko hazkundera izan zuten.

Gastuei erreparatuz, esan ohiko gastuak izan zirela gastu ez finantzarioen igoeraren oinarria, % 4,7 egin baitzuten gora. Langile-gastuek gastu guztien % 20,8 suposatu zuten eta % 2 egin zuten gora. Ohiko transferentziek % 9,7 egin zuten gora (gastu guztien % 30,6) 2016ko ekitaldiarekiko. Ohiko beste gastuek, azkenik, % 2,1 egin zuten gora.

Inbertsioetan eta Kapital-transferentzietan eginiko gastuek gastu guztien % 8,9 suposatu zuten eta % 8,3ko hazkundera izan zuten 2016. urtearekiko (120 milioi gehiago).

Erakundeei erreparatuz, Eusko Jaurlaritzak zein lurralde-mailako erakundeek (Aldundiak eta Tokiko erakundeak) aurrekontu-saldo ez finantzario positiboak izan zituzten. Eusko Jaurlaritzak, hain zuzen ere, 235 milioi euroko saldo positiboa izan zuen, 636 milioi euroko hobekuntza agertuz 2016. urtean izandako horrekiko. Hiru lurralde historikoek saldo positiboak izan zituzten

ere: Arabako eta Bizkaiko saldoak aurreko ekitaldian izandakoak baino zertxobait txarragoak badira ere, Gipuzkoakoak hobekuntza arina izan du.

Euskal Administrazioen datu finkatuak (Mila euro). 2017

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURLAR.	ARABA/ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	16.690.012	10.180.894	2.741.421	8.510.168	5.379.338
GASTU ARRUNTAK	14.701.164	9.178.535	2.564.511	8.019.809	5.060.116
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.988.848	1.002.359	176.910	490.359	319.222
KAPITAL SARRERAK	167.096	137.182	20.255	41.183	33.356
KAPITAL GASTUAK	1.557.201	904.233	127.008	337.108	253.732
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	598.743	235.308	70.157	194.434	98.846
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 17-12-31)	11.653.299	9.082.193	612.333	1.334.689	624.084

Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal AEko Administrazio Publikoetako zor bizia 11.653,3 milioi eurokoa zen 2017ko abenduaren 31n. 2017ko pasibo berriak 1.249,3 milioi izan ziren; amortizazioak, bestetik, 1.020 milioi.

2017ko amaieran amortizatzeke dagoen zor bizi guztiaren % 77,9 Eusko Jaurlaritzari dagokio, % 11,5 Bizkaiari, % 5,4 Gipuzkoari eta beste % 5,2a, azkenik, Arabari.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62